



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Ugao-Miraballeseko Udala

Deialdia eta oinarri arautzaileak, aldi baterako lan-kontratudun langilea hautatzeko prozesurako, Ugao-Miraballesko udalean errelebo-kontratu bidez Animatzaile Soziokultural bat kontratatzeko, merezimendu-lehiaketa bidez.

Deialdia eta oinarri arautzaileak, aldi baterako lan-kontratudun langilea hautatzeko prozesurako, Ugao-Miraballesko udalean errelebo-kontratu bidez Animatzaile Soziokultural bat kontratatzeko, merezimendu-lehiaketa bidez.

2024ko maiatzaren 20ko 199/24 Alkatetza Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Lehenengoa: Ugao-Miraballesko Udaleko Animatzaile Soziokultural lanpostua txanda irekiz betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten deialdia eta oinarri espezifikoak onartzea, Udal honetako langile bat errelebo-kontratu bidez ordezkatzeko, erretiro partziala hartu duen langilearen ohiko erretiro-adinera arte (2027ko ekainaren 19a).

Bigarrena: Deialdia hastea eta oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal webgunean eta iragarki-oholean argitaratzea.

Ugao-Miraballesen, 2024ko maiatzaren 30ean.—El Alcalde, Ekaitz Mentxaka Corral



**DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK, ALDI BATERAKO
LAN-KONTRATUDUN LANGILEA HAUTATZEKO PROZESURAKO,
UGAO-MIRABALLESKO UDALEAN ERRELEBO-KONTRATU BIDEZ ANIMATZAILE
SOZIOKULTURAL BAT KONTRATATZEKO, MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ**

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

1.1. Deialdi honen xedea da Animatzaile Soziokultural bat Administrazio Bereziko A taldeko, A2 azpitaldeko, 20. lanpostu-mailako osagarriko eta bereizi gabeko motetako lan-kontratuko langilea kontratatzea.

1.2. Kontratazio hori aldi baterako lan-araubidekoa da, eta lanaldi partzialekoa, errelebo-kontratuaren kontratu-modalitatean.

1.3. Hautatutako pertsonaren kontratazio aldia gaur egun Ugao-Miraballesko Udaleko Lanpostu Zerrendako (3L) Animatzaile Soziokulturalaren lanpostua betetzen duen langileari erretiro partziala ematen zaion egunetik, 2024ko ekainaren 19rako aurreikusita dagoena, erretirorako ohiko adinera iristen den egunera arte izango da, 2027ko ekainaren 19an.

Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 12.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, errelebo-kontratuaren xedea da erretiro partziala hartzen duen langileak hutsik utzitako lanaldia ordezkatzeko.

1.4. Prozesu honen emaitza ordezkaturako langile horri Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak erretiro partzialeko pentsioa aitortzearen baldintzapean geratzen da.

1.5. 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data igarota

1994ko abenduaren 31ko derrigortasun-data duen 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa da deitutako lanposturako. Beraz, lanpostu hori ezin izango dute bete oinarri haue-tan ezarritako moduan betetzen dutela egiaztatu ez duten izangaiek:

Honako hauek dira euskara-tituluen eta ziurtagirien baliokidetzaraubidea eta euskararen ezagutza egiaztatzeetik salbuesteko kasuak arautzen dituzten arauak: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; 187/2017 Dekretua, uztailaren 4koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta egiaztatzeetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua aldatzen duena.

1.6. Erantzukizun orokorrak eta funtzioak.

— Erantzukizun orokorrak:

- Ugao-Miraballes udalerriko biztanleentzako kultur programa eta zerbitzuen diseinua, plangintza eta gauzatzea kudeatzea, liburutegi-zerbitzua izan ezik.

— Eginkizunak:

- Proiektuen diseinuan, kultura-programen plangintzan eta funtzionamendu-estrategietan laguntzea.
- Kultura-jardueren plangintza eta programazioa kudeatzea.
- Laguntzak eta dirulaguntzak prestatzea eta kontrolatzea.
- Kultur zerbitzuak kudeatzeko lehiaketetan plegu teknikoak egitea
- Haur eta gazteentzako zerbitzuen, gazteentzako informazio-zerbitzuaren, historia ezagutzeko zentroaren eta aisialdiko ikastaroen enpresa esleipendunak kudeatutako zerbitzuez arduratzen diren eta kulturako erdi-mailako teknikari gisa lanpostuak betetzen dituzten langileekin koordinatzea.
- Kultura-ekipamenduek behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea.
- Dagozkion txosten teknikoak idaztea



- Kultura-zerbitzuen barruan lan egiten duten profesionalen taldeari begira egoitea, aurreikusitako helburuak behar bezala betetzeko.
 - Hautemandako beharretatik, erabiltzaileen eskaeretatik, tokiko elkarteetatik eta abarretatik sortutako kultura-proposamenak egitea.
 - Harreman zuzena eta etengabea tokiko elkarteen sarearekin, udal honetako tokiko zerbitzuekin eta udal arloekin, eta mugakide diren beste udal batzuetako langileekin eta arloekin, kultur ekimenak batera gauzatzeko, bai udal mailan, bai udalaz gaindiko mailan.
 - Jai-batzordea koordinatzea, jai-programak elkarrekin landuz, horiek kudeatuz eta gauzatuz eta baloratuz.
- Lanpostu guztietarako eginkizun komunak:
- Laneko osasun eta higieneari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzea.
 - Lan-sistemei eta -prozesuei dagokienez, hobetzeko proposamenak egitea nagusiei.
 - Bere sailari eta, oro har, korporazioari behar bezala funtzionatzen laguntzeko eskatzen zaizkion eginkizunak edo bere lanpostuarekin zerikusia duten antzeko kategoriakoak egitea eta gauzatzea.
 - Bere eskumenekin eta informazio- eta komunikazio-teknologia berriekin lotutako gaien buruzko prestakuntza jasotzea, bere lanpostua eraginkortasun handiagoz betetzeko.

1.7. Datuen babesa.

Ugao-Miraballesko Udalak erakundearen giza baliabideak kudeatzeko eremuan tratatzen ditu datuak, Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera.

Datu pertsonalak gizarte segurantzaren, enpleguaren eta zergen arloan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie, bai eta finantza-erakundeei ere, eta beste administrazio publiko batzuekin egiaztatu ahal izango dira, datuen zehaztasuna egiaztatzeko dituzten eskumenen arabera.

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko, jakinarazpen bat bidaliz Udalaren helbidera edo dbo-dpd@ugao-miraballes.eus helbide elektronikora, bai eta informazio gehiagorako ere www.ugao-miraballes.eus gardentasun-atarian <http://www.ugao-miraballes.eus/>

1.8. Ugao-Miraballesko Udalak urtero ezarriko ditu lanaldia eta egutegi ofiziala, betiere lanpostuaren izaera eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

Udalak lanaldi zatitua eta dedikazio berezia eskatu ahal izango ditu; hala ere, zerbitzuaren beharrengatik, beste edozein ordutegi betetzeko agindu ahal izango du, Administrazio Publikoan kategoria bereko funtzionarioentzat dagoen lanaldi arruntaren barruan. Nolanahi ere, ordutegi zatitua egiteak ez du eskubiderik emango Ugao-Miraballesko Udalak kategoria horretako funtzionarioentzat oro har ezarritakoez bestelako konpentsazio ekonomiko edo osagarriarik emateko.

Bigarrena. — Izangaiek bete beharreko baldintzak edo betekizunak

2.1. Dagozkion hautaketa-prozeduretan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

2.1.1. Nazionalitatea.

Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea edo langileen joan-etorri askea aplikatzen zaien estaturen bateko herritartasuna izatea, Europar Batasunak sinatu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera.

**2.1.2. Adina.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 16 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.

2.1.3. Titulazioa.

Erdi-mailako unibertsitate-titulua eta diplomatura izatea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eskatutako titulazio akademiko ofizial hori izatea, edo, halakorik ezean, titulazio hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea, bai eta lanpostu bakoitzari dagozkion oinarri espezifikoetan jasotako beste betekizun guztiak ere.

Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek dagozkion baliozkotzea edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria dutela egiaztatu beharko dute.

2.1.4. Gaikuntza.

Diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezirik ez izatea funtzionarioen kidego edo eskaletara iristeko.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ez izatea desgaikuntzarik edo egoera baliokiderik izatea, eta ez izatea diziplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragotzeko.

2.1.5. ateraezintasuna edo ezintasuna.

Indarreko araudiaren arabera bateraezintasun- edo ezintasun-kausa legalik ez izatea, eta araudi horrek ematen dion aukera-eskubidea salbu uztea.

2.1.6. Gaitasuna.

— Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea eta dagozkion zereginak egitea eragotzen duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

— Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) ezagutzeko nolabaiteko gaitasuna izatea (euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna).

2.1.7. Langabezia.

Lanbiden izena emanda egotea.

2.1.8. Haurrak eta nerabeak babestea

Hautagaiek Sexu Delituen Ziurtagiri Negatiboa izan behar dute, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

2.2. Aurreko baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira, eta hautaketa-prozesuan zehar ere bete beharko dira, harik eta izendatu arte.

2.3. Aurrekoa gorabehera, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak izangairen batek deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez dituela jakiten badu, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio hautaketa-prozesua deitu duen agintariari.

Hirugarrena. — Eskabideen aurkezpena**3.1. Eskabidea: eredu normalizatua**

Hautaprobetan parte hartu nahi dutenek Ugao-Miraballesko Udaleko erregistro orokorrean (Herriaren enparantza, z/g) eredu normalizatuan (I. eranskina) emango zaien eskabidean adierazi beharko dute.



Inprimakia www.ugao-miraballes.eus udal webgunetik ere deskargatu ahal izango da. <http://www.ugao-miraballes.eus/>

3.2. *Aurkezteko lekua, epea eta modua*

Eskabideak honela aurkez daitezke:

- Telematikoki www.ugao-miraballes.eus web orrian, edo aurrez aurre, Ugao-Miraballesko Udaleko erregistro orokorrean, 8:30etik 14:30era, Alkatetzari zuzenduta, 10 egun naturaleko epean, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. <http://www.ugao-miraballes.eus/>
- Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera aurkeztu ahal izango dira.

3.3. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak*

Halaber, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskabidea aurkeztean:

- NANaren fotokopia edo nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiria, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren kasuan.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, hala badagokio.
- Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa.
- Izangaiek, eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduak zerrendatzen dituen adierazpen bat aurkeztuko dute, oinarri horietan jasotako ereduaren arabera. Bertan, interesdunek alegatutakoak zehaztuko dira, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
 - Prestakuntza egiaztatzeko, tituluen eta/edo ziurtagirien fotokopia aurkeztu beharko da, ikastaroaren iraupen-orduak eta ikastaroa eman zuen ikastetxea adierazita.
 - Lan-esperientziaren egiaztagiria (zerbitzu-ziurtagiriak, kontratuen eta lan-bizitzaren fotokopia), egindako lanak, kategoria eta lan-denbora justifikatu beharko dira.

Eskabideak aurkezteko epean ezin izango dira baloratu alegatutakoez bestelako merezimenduak.

3.4. *Eskabidea aurkeztearen ondorioak.*

Eskabidea aurkezteak deialdian eskatutako baldintzak eta eskakizunak onartzeko konpromisoa dakar, eta emandako datuak faltsuak badira, hautaketa-prozesutik kenduko da.

3.5. *Baldintzak betetzea.*

Izangaiek oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari buzkoak izango dira beti.

3.6. *Merezimenduen balorazioa.*

Ez dira kontuan hartuko eskabidea aurkeztean agiri bidez justifikatzen ez diren merezimenduak. Horretarako, hautagaiek egokitutako jotzen dituzten fotokopiak aurkeztu beharko dituzte, eskabideari erantsi nahi dizkiotenak.

Lehiaketa-fasean baloratu beharreko merezimenduak epaimahai kalifikatzaileak adierazitako moduan eta epeetan egiaztatuko dira agiri bidez.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango du jatorrizko dokumentazioa aurkezteko, erkatzeko, eta lanpostua betetzeko deia egiten zaionean.

**Laugarrena.—Izangaiak onartzea****4.1. Onartutako eta baztertutako izangaien hasierako onarpena**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkate-udalburuak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko ebazpena emango du, eta ebazpen hori udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, www.ugao-miraballes.eus web orrian. <http://www.ugao-miraballes.eus/>

Zerrenda horietan jasoko da, hala badagokio, zergatik ez den onartu, eta 5 egun naturaleko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskabideko akatsak zuzentzeko.

4.2. Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko onarpena

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, alkate-udalburuak ebazpena emango du, hautaketa-prozeduretan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko. Ebazpen hori Udalaren iragarki-taulan, www.ugao-miraballes.eus udal-webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. <http://www.ugao-miraballes.eus/>

Zerrenda horietan izangaiaren NAN zenbakia eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia agertuko dira.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ugao-Miraballesko Udalari, hilabeteko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Probak egiten diren egunean errekurtsoa ebatzi ez bada, eraginpeko izangaiek kautelaz egin ahal izango dute azterketa, baina ez du baliorik izango errekurtsoa ezetsiz gero.

4.3. Jakinarazpenak

Jakinarazpenak egiteko, eskabidean adierazitako helbidea hartuko da helbidetzat, salbu eta ondoren beste helbide bat berariaz eta modu frogagarrian jakinarazten bazaio deialdia egin duen organoari.

Bosgarrena.—epaimahaiaren osaera, izendapena eta jarduna**5.1. Osaera.**

5.1.1. Hautaketa Organoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, kolegiatua izango da, eta bere osaera kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioei egokituko zaie, bai eta emakume eta gizonen arteko parekotasunari ere (egokia ez dela justifikatu ezean, sexu bakoitzeko ordezkarien %40 izan beharko du gutxienez).

5.1.2. Epaimahaia osatzen duten pertsonen erdiek, gutxienez, bete beharreko lanposturako eskatzen den ezagutza-arlo bereko titulazioa izan beharko dute, eta guztiek bete beharreko lanposturako eskatzen den maila akademiko bera edo handiagoa izan beharko dute. Halaber, epaimahaiko idazkaritzak ez du boto-eskubiderik izango.

5.1.3. Hautaketa Organoa lehendakari batek, idazkari batek eta hiru bokalek osatu dute. Guztiek hitza eta botoa izango dute, eta alkate-udalburuak izendatuko ditu.

5.1.4. Epaimahaiko beste kide batek ordezkatzeko du epaimahaiburua, kargua hutsik dagoenean, epaimahaia kanpoan denean, gaixorik dagoenean edo epaimahaiari eta haren ordezkari eragiten dion legezko beste arrazoiaren bat dagoenean. Maila berekoak badira, adin-nagusitasuna gailenduko da.

5.1.5. Epaimahaiko idazkariaren ordezkapena, epaimahaia hutsik dagoenean, kanpoan denean, gaixorik dagoenean edo horri eragiten dion legezko beste arrazoiaren bat dagoenean, epaimahaiko beste kide batek egingo du, epaimahaiaren gehiengoaren erabakiz hautatua.



5.1.6. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 31.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, epaimahaietan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari bat egongo da.

5.1.7. Epaimahaiak egokitzen dituen probetarako aholkulari espezialistak sar-tzea erabaki ahal izango du, eta proba horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.

5.1.8. Epaimahai Kalifikatzailean parte hartzeak zerbitzuaren ondoriozko kalte-or-dainei buruzko araudian legez aurreikusitako kalte-ordainak jasotzea ekarriko du.

5.2. *Izendapena*

5.2.1. Dagokion Hautaketa Organoko kideak izendatzean, horien ordezkioak ere izendatuko dira.

5.2.2. Epaimahaiaren izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, korporazioaren iragarki-oholean eta www.ugao-miraballes.eus web orrian argitaratuko da, behin betiko onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera.

5.3. *Jarduna*

5.3.1. Epaimahaia ezin izango da eratu kideen erdia baino gehiago bertaraten ez bada, eta, betiere, lehendakaria eta idazkaria bertan egon beharko dira.

5.3.2. Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduz, eta prozeduraren objektibotasunaren eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatzearen erantzule izango da. Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta oinarri hauetan prozedura behar bezala antolatze-ko eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

5.3.3. Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak lehen-dakariaren kalitatezko botoaren bidez ebatziko dira.

Nolanahi ere, epaimahaiak aztergai diren gaietan adituak diren pertsonak bilkuretara joatea eskatu ahal izango dute. Aditu horiek hitzarekin baina botorik gabe jardun ahal izango dute beren espezialitateko gaietan.

5.3.4. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, azken ahalmen hori ez duen idazkariak izan ezik.

5.3.5. Epaimahaiko kideek ez dute esku hartuko, alkate-udalburuari jakinaraziz, eta errekusatuak izan daitezke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urria-ren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. — *Hautaketa prozedura*

Izangaiak hautatzeko prozedura lehiaketa izango da.

Lehiaketa-fasean, izangaiak alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituak zaizkio, oinarri hauetan jasotako baremoen arabera.

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango da.

Bakoitzari dagozkion puntuak esleituak zaizkio, baremo honen arabera:

Esperientzia profesionala: 70 puntu

— Administrazio Publikoan funtzionario edo lan-kontratuko langile gisa egindako zer-bitzuak:

Herri Administrazioan Kultura Animatzaile gisa lanpostuan egin beharreko eginki-zunekin zuzeneko zerikusia duten gaietan egindako zerbitzuengatik, 1,62 puntu zerbitzu-hilabete bakoitzeko (ez dira zenbatuko zatiki txikiagoak).

— Enpresa pribatuan egindako zerbitzuak, egin beharreko eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten gaietan:



Enpresa pribatuan, besteren konturako langile gisa, Kultura Animatzaile gisa lanpostuan bete beharreko eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten gaietan emandako zerbitzuengatik: 1,62 puntu zerbitzu osoen hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko zatiki txikiagoak).

Atal honetan ezarritako puntuazioak dedikazio osoko erregimenean emandako zerbitzuei dagozkiela ulertuko da.

Puntuazio horiek erdira murriztuko dira lanaldi partzialeko erregimenean emandako zerbitzuen kasuan, horien ehunekoa edozein dela ere, eta ezin izango da aldatu lor daitekeen gehieneko puntuazio-muga. Esperientzia profesionala Administrazioaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Prestakuntza osagarria: 30 puntu

Lanpostuari dagozkion eginkizunekin zerikusia duten diplomak edo prestakuntza-ikastaroen ziurtagiriak izatea.

- 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroa: 2 puntu, gehienez 4 puntu.
- 10-20 orduko ikastaroak: 4 puntu, gehienez 8 puntu.
- 20 ordutik gorako ikastaroak: 6 puntu, gehienez 18 puntu.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasun-hurrenkera irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

- Esperientziagatik edo antzinasunagatik puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- Prestakuntza osagarrian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde
- Ugao-Miraballesko Udaleko lanpostuan bete beharreko eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten gaietan zerbitzu-denbora gehien eman duen izangaiaren alde.
- Ugao-Miraballeskoa ez den beste udal batzuetako lanpostuan bete beharreko eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten gaietan zerbitzu-denbora gehien eman duen izangaiaren alde.

Zazpigarrena. — Lehiaketaren hasiera eta garapena

Gehienez ere 10 egun naturaleko epean, erreklamazioak aurkezteko edo ebazteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, Hautaketa Epaimahaia eratuiko da lehiaketa baloratzeko.

Epaimahaiak izangaiek aurkeztutako agirien bidez egiaztatutako merezimenduak eta inguruabarrak baloratuko ditu, 6. oinarrian zerrendatutako irizpide eta merezimenduen arabera.

Lehiaketa bidezko hautaketa-prozesua amaituta, puntuaziorik handiena lortu duen izangaia dinamizatzaile/teknikari soziokultural lanposturako kontratatuko da.

Ordeztko duen langilea erretiro partzialeko egoerara igarotzen den egun berean hasiko da hautatua izan den lanpostuan.

Bi hilabeteko probaldia ezartzen da, Langileen Estatutuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena. — Dokumentuen aurkezpena

Proposatutako pertsonak, ezarritako epean, oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu, lehenago aurkeztu ez baditu:

- NANaren fotokopia konpultsatua edo nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen duen agiria, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren kasuan.
- Udalarekin itundutako zerbitzu medikoek emandako ziurtagiria, non egiaztatzen den ez duela ematen gaixotasun kutsakorrik edo akats fisiko edo psikikorik, dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dienik.



- Edozein herri-administrazioetako zerbitzutik diziiplina-espediente bidez bereizita ez dagoela eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Administrazio publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan aurreikusitako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausaren batean sartuta ez dagoela adierazten duen adierazpena.
- Oinarri hauetan eta oinarri horiei erantsitako eranskinetan eskatzen diren merezimenduen eta gainerako baldintza espezifikoaren justifikazio dokumentala, konpultsatua.
- Gizarte Segurantzako zenbakiaren fotokopia.
- Bankuko kontua, IBANarekin.

Bederatzigarrena. — Azken arauak.

Deialdi honetatik eta Epaimahaiaren jarduketetatik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen ekainaren 13ko 29/1988 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Deialdi honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Udaleko alkate-udalburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Bi errekurtsoak ezin izango dira aldi berean aurkeztu.



ANEXO I

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

Izena eta abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI	
Kalea, Plaza / Calle, Plaza	ZK. / N°	Solairua / Piso	Eskua / Mano
Posta-kodea / Código Postal	Herria / Municipio	Probintzia / Provincia	
Helbide elektronikoa / Correo electrónico		Telefono Zk. / N° Teléfono	

Desgaitasunagatik egokitzapena behar dut / Necesito adaptación por discapacidad

☐

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEA /ACREDITACIÓN PERFIL LINGÜÍSTICO:

Euskarazko 3. HE.agiria edo baliokidea aurkezten dut / Presento acreditación de perfil 3 de euskera o equivalente

☐

LAN-POLTSA / BOLSA DE TRABAJO:

Baimena ematen dut deialdi honen ondoriozko lan-poltsan jasotako nire datuak lagatzeko, Ugao-Miraballesko Udalak behar duen edozein administrazioari eman diezaien batak, absentziak, aldi baterako premia orokorrak eta abar estaltzeko. / Autorizo la cesión de mis datos incluidos en la Bolsa de Trabajo resultante de esta convocatoria, para que el Ayuntamiento de Ugao-Miraballes facilite a cualquier Administración que la requiera para la cobertura de bajas, ausencias, necesidades puntuales temporales, etc..

Bai / Si

☐

Ez / No

☐

ADIERAZTEN DUT / MANIFIESTO

1.- Eskaera orriarekin batera honako fotokopia konpultsatuak aurkezten ditudala: NAN eta deialdian parte hartzeko eskatzen diren tituluak.

Que adjunto a la instancia fotocopia del D.N.I. y titulación exigida para tomar parte en la convocatoria.

2.- Eskaera orriarekin batera agertutako merituak jasotzen dituen aitortpena aurkezten dudala. Que adjunto a la instancia una declaración en la que relaciona los méritos alegados.

ESKATZEN DUT / SOLICITO

Deialdi honen xede diren autaketa probetarako ONARTU IZATEA. Horretaz gain, AITORTZEN DUT eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala eta eskaeran jasotzen diren datuak egiazkoak direla. Era berean, hitza ematen dut eskaera honetan agertzen diren datuak agiri bidez egiaztatuko dituela.

SER ADMITIDO/A a las pruebas selectivas objeto de la convocatoria. Y DECLARO CUMPLIR con todos y cada uno de los requisitos exigidos en la misma y que son ciertos los datos que se consignan, asumiendo el compromiso de acreditar documentalmente los datos que figuran en esta solicitud.

Lekua eta data/ Lugar y Fecha

Sinadura / Firma

UGAO-MIRABALLESKO UDALEKO ALKATEA / SR. ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE UGAO-MIRABALLES.



ESKABIDE HAU HONAKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE:
ESTA SOLICITUD SE PUEDE ENTREGAR EN:

UGAO-MIRABALLESKO UDALA
Herriaren Enparantza, Z/G
48490 UGAO-MIRABALLES (Bizkaia)
ugaokoudala@bizkaia.eus
www.ugao-miraballes.eus

DATUEN BABESA

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, hautaketan parte hartzeko eskaeran lortutako datu pertsonalak goian adierazitako hautaketa-prozesuak, oposizioa eta helburua izena duen datu-fitxategian jasoko dira, zeina Ugao-Miraballesko Udalaren erantzukizuna baita.

Horiekin bat etorritik, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datu hauek UDAL ERREGISTROA artxiboan sartuko ditugula, aurkeztutako eskaera edo azalpenaren ondoriozko ekintzak kudeatzeko eta tramitzatzeko helburu bakarrarekin. Ugao-Miraballesko Udalak datu horien erabilera komertziala beste erakunde batzuekin ez partekatzeko konpromisoa hartzen du. Nahi duzuenen erabil ditzakezu datuak ikusi, zuzendu, baliogabetu edo aurka egiteko legeak ezarritako eskubideak.

PROTECCIÓN DE DATOS

De conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, los datos de carácter personal obtenidos en la solicitud de participación en la selección, serán recogidos en el fichero de datos con la denominación procesos de selección, oposición y finalidad arriba señalados, y que es responsabilidad del Ayuntamiento de Ugao-Miraballes.

Le informamos que estos datos que nos proporciona serán incorporados al fichero REGISTRO MUNICIPAL con el único objeto de gestionar y tramitar las acciones derivadas de la solicitud. El Ayuntamiento de Ugao-Miraballes se comprometa a no compartir con ninguna entidad el uso comercial de los mismos. En cualquier momento puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición determinados por la ley.



MEREZIMENDUN ZERRENDA / RELACIÓN DE MÉRITOS

Izena eta abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI
---	-----------

ESPERIENTZIA PROFESIONALA / EXPERIENCIA PROFESIONAL:

1.-
2.-
3.-
4.-
5.-
6.-
7.-
8.-
9.-
10.-

PRESTAKUNTZA OSAGARRIA / FORMACIÓN COMPLEMENTARIA:

1.-
2.-
3.-
4.-
5.-
6.-
7.-
8.-
9.-
10.-

Lekua eta data/ Lugar y Fecha Sinadura / Firma